



Lapurdum

Revue d'études basques

24 | 2023

Numéro XXIV

Ohar bat *-(e)netz* menderagailuaz

Xabier Artiagoitia



Édition électronique

URL : <https://journals.openedition.org/lapurdum/4382>

ISSN : 1965-0655

Éditeur

IKER

Édition imprimée

Date de publication : 14 décembre 2023

Pagination : 39-52

ISBN : 978-2-9590077-1-2

ISSN : 1273-3830

Référence électronique

Xabier Artiagoitia, «Ohar bat *-(e)netz* menderagailuaz», *Lapurdum* [Léan], 24 | 2023, Sarean emana----
an 01 juillet 2024, kontsultatu 03 septembre 2024. URL: <http://journals.openedition.org/lapurdum/4382>



The text only may be used under licence CC BY-NC-ND 4.0. All other elements (illustrations, imported files) are "All rights reserved", unless otherwise stated.

Ohar bat *-(e)netz* menderagailuaz¹

XABIER ARTIAGOITIA
UPV/EHU

Zuazo (2014) lanean, eta lehenagoko beste batzuetan, irakurria dut *-(e)netz* menderagailua Ipar Euskal Herriko euskararen ezaugarria dela eta berriki argitaratu duen Baigorri eta inguruko euskararen lanean adibideren bat edo beste azaltzen da:

(1) Galdein daut jiten ahal zenez

[Zuazo 2021: 101]

Jakina da *-(e)netz* edo *-(e)nez* menderagailuak bai/ez erako zehargalderetan edo, nahiago bada, mendeko polaritatezko galderetan ageri den menderagailua dela, baina luzaz uste izan dut *-(e)netz* formak polaritate horren balio biak (*bai* ala *ez*) biltzen zituela bere baitan, (1)-ko perpausa nolabait beste honen baitezpadako parafrasia balitz bezala-edo:

(2) Galdein daut jiten ahal zen *ala ez*

Uste horrek, egia izatera, menderagailu hau tipologikoki oso interesgarria bilaka lezake, nik dakidala, halako menderagailuak (polaritatearen balio biak beren gain hartzeko gaitasuna dutenak) arrotzak direlako. Horren haritik, irakurlea ohartzen bide da honako galdera biak ez direla, ez egituraz ez testuinguruz, berdinak (cf. Bolinger 1978):

(3) a. Etorriko zara bihar?

1 Lan xume hau Jon Casenave irakasleari esker onez eskaintzen diot. Eskerrak eman behar dizkiet nola edo hala artikulua ontzen lagundu didatenei, eurek hemen dauden hutsetan errurik ez daukaten arren: I. Arteatx, G. Bilbao, K. Bilbao, C. Fernández, A. Ensunza, J. Ibarra, J. Ozerinjauregi, eta batez ere Maider Bedaxagar, Maitena Duhalde eta Argia Olçomendyri datuekin laguntzarren. Zorretan nago, baita ere, Sergio Monforte eta Koldo Zuazorekin, aurreko bertsio bati egindako iruzkinengatik.

b. Etorriko zara bihar ala ez?

Batetik, (3b)-k egitura hautakari bat, perpaus mailakoa ere izan daitekeena (Goenaga 2009), ezkututzen du (cf. *etorriko zara bihar ala ez zara bihar etorriko?*); baina, horrez gain, larritasun puntu bat ere badauka: (3b) diogunean iduri du behartzen ari garela solaskidea lehenbailehen erantzun bat ematera; (3a)-k, aldiz, galdera neutroagoa dakar eta erantzun eskeak ez dauka halako berehalakotasun kutsurik.² Pentsatzekoa da, hartara, *-(e)netz* menderagailuak, ‘-(e)n ala ez’ interpretazioa edukitzekotan, (3b) horrek duen larritasun puntu hori eduki lezakeela. Hau da, pentsa liteke *Galdegin daut jiten ahal zenez* eta *Galdein daut jiten ahal zen* perpausen arteko kontrastea (3a) eta (3b) perpausen artekoaren antzekoa litzatekeela.

Lafitte (1962) eta Euskaltzaindia (1999) lanak hartu besterik ez dago ikertzaile honen uste okerraz ohartzeko: lehenak besterik gabe argitzen du zehargalderetako *-(e)n* menderagailuari instrumental mugagabea gehitzen zaiola *-(e)nez* edo *-(e)netz* formak sortzeko, eta *berriz* eta *berritz* aldaeren arteko lehia dakar gogora. Euskaltzaindiak (1999), bestalde, *-(e)netz* forman *-(e)n* soilaren indargarria ikusten du eta, aldaera historikoak eta literatur tradizioaren erabilera erreparatu ondoren, *-(e)netz* aldaeraren aldeko hautua egiten du, 2001ean berretsia; hortik dator forma hori artikulu honen izenbururako estandartzat hartu izana.³

Aurreritzi okerrak aurreritzi, delako *-(e)netz* menderagailua edukiko dut ikergai hemen. Funtsean, lau galderak ardura naute:

1. Benetan bai/ez galderetako menderagailuaren aldaera soila ote da *-(e)netz*? Ala egitura konplexuagoa ostantzen du? Arestian iradoki bezala, lehenak dirudi zuzena;
2. aurreko bietatik edozein delarik ikuspegi zuzena, nola azaldu aldaera formal guztiak? Hots: *-(e)netz*, *-(e)nez*, *-(e)nentz*, *-(e)nz*, *-(e)nenz*;
3. *-(e)n* eta *-(e)netz* forma biak erabiltzen dituzten euskaldunentzat, bada ñabardurarik bi menderagailuen artean? Jakina, hau lotuta dago aurreneko galderarekin: egitura konplexuagoa ezkututzen badu *-(e)netz* menderagailuak, interesa zaigu jakitea zein

2 Goenagak (2009: 394) dio (3b) motako galderak *zakar* puntu bat duela; Biezmak (2009) *cornering effect* deritzo berehalako erantzun eskeari. Goenagak egitura hautakari guztiak perpausen juntaduratik eratoritzen direla defendatzen du eta bai/ez erako galderaz ere proposamen berdina egiten du (hots, *etorriko zara?* bezalako zerbait *etorriko zara ala ez zara etorriko?* egituratik eratorriko litzateke). Nik ez dut bai/ez erako galderen eratorbide honekin bat egiten.

3 Ikus Euskaltzaindiaren 115. erabakia: 115 Araua - Euskaltzaindiaren Arauak. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_euskaltzaindiarenarauak&view=front-page&Itemid=424&lang=eu&arauald=115.

den egitura konplexuago horri dagokion ñabardura. Eta bata bestearen aldaera hutsa bada, argitu behar da ezberdintasunik dagoen bien artean, pentsatzekoa den arren halakorik ez dagoela (*-(e)la* eta *-(e)larik* menderagailu adberbialen artean ez dagoen era berean);

4. interes dialektologikoa ere badu kontuak: zein da *-(e)netz* menderagailuaren hedadura?

Hemen batez ere 1 eta 3 galderak landuko ditut, tarteka 2 eta 4 ere ikutuko ditudan arren. Artikuluaren antolaketa hauxe da: lehen atalean *-(e)netz* menderagailuz esandakoak errepatatuko ditut; hor emango ditut gako batzuk *-(e)netz* menderagailuaren ustezko konplexutasunaren gaia ulertzeko. Ondoren, bigarren atalean, *-(e)netz* menderagailuaren balizko konplexutasuna baztertzeko arrazoiak emango ditut, batez ere 20 eta 21. mendeko lekukotasun idatzietan oinarrituta. Hirugarrenez, Ipar Euskal Herriko hainbat hiztunek emandako datuez lagunduta, egiaztatuko dut ea funtsean zehargalderetako *-(e)netz* eta *-(e)n* berdinak diren eta gaur egun berdin erabiltzen diren eta analisi sintaktiko bat proposatuko dut.

1. *-(e)netz* menderagailuaren berri aurreko zenbait lanetan

Hogeigarren mendeko zenbat gramatika lanetan *-(e)netz* menderagailua *-(e)n ala* ez egitura hautakari batetik datorrelako hipotesia edo iradokizuna nahiko argi sumatzen da: Azkuek (1925) zehargalderetako *-(e)n* formaren kari, *-(e)nez*, *-(e)nz*, *-(e)ntz*, *-(e)nentz* aldaerak aipatu ondoren, gaineratzen du: “Posible es que estas variantes provengan de esta locución: *Nork daki itzuliko den ala ez...* Omitido ese *ala* queda *denez*, *denz*, *dentz*, y *denentz*.” (Azkue 1925: 369). Altubek (1929) ere pare bat bider aipatzen du ustezko baliokidetzari hori: “Son, pues, equivalentes las frases siguientes *egiya da-nentz = egiya da-n ala ez*” (ibidem: 125). Hots, Azkuerengan jatorri formalaren inguruko hipotesia dena Altuberengan parafrasi edo interpretazio kontu bat bihurtzen dela dirudi. Txillardegik (1979: 403) ere kontu berdina ematen du aditzera *-(e)nez* ‘... ala ez’ itzultzen duenean: *ez dakit etorri (ote) denez* (=... je ne sais pas s’il est tombé **ou pas**) [enfasia jatorrizkoan]. Beste horrenbeste esan liteke Arejitaren (1985) lanaz edo *Euskara Batuaren Eskuliburua* (Euskaltzaindia 2021: 357) delakoaz ere. Nire konprobazioen arabera, ideia hau berai jada Larramendiren (1729) gramatikan bertan ere egiaztatzen da. Larramendik (1729: 310) aditzera ematen du, zehargalderetan erromantzez etiketa hautakaria (cf. *o no?*) gehi daitekeen moduan, euskaraz bi aukera direla; bata *edo ez* hautakaria gehitzea da: *badakizu gertatuko dan, edo ez?*; bestea, “syncopando la disiuntiva *edo ez* en una *z*, que se añade a la terminación del determinado, ... *badakizu gertatuko danz?*”.

Iragarri dugunez, beste tradizio bat da besterik gabe *-(e)netz* menderagailuan *-(e)n + z* (instrumentala) ikustea. Ideia hori Lafittek (1962) jasotzen du, Villasantek (1979) ere bai Mitxelenaren oniritziarekin, eta Euskaltzaindiak (1999) ere bai. Azken lan bietan, instrumentala menderagailuaren indargarria besterik ez omen da.

Gero argudiatuko dudanez, *-(e)netz* menderagailua egitura hautakari batekin lotzeak galdera interesgarriak planteatzen ditu: hipotesi hori egia izatera menderagailu honek konplexutasun estruktural handia ezkututzen du (perpauk hautakarien antzeko konplexutasuna) eta espero izatekoa da *-(e)n* menderagailu soila duten perpausek ez bezalako jokabide sintaktikoa islatzea. Menderagailu biak bata bestearen aldaera hutsak badira, orduan ez dugu konplexutasun sintaktikoan alde handirik espero. Badira arrazoi batzuk menderagailu biak aldaera hutsak direla pentsatzeko. Baina aurretik eman diezaiogun behako bat dialektotokiak esateko duenari.

Euskaltzaindiaren EHHA (2016) lanak ere badakar *-(e)netz* menderagailuaren berri, bi mapatan.



1 irudia. EHHA 6. alea: 549 or.



2 irudia. EHHA 6. alea: 551 or.

Atlasaren mapetan bi datu dira deigarriak: bateko, mapa hauek itzulpen batean oinarritu dira, «Je ne sais pas s'il vendra » eta « Demande-lui s'il vient » eta itzulgai biak zehargaldera

arruntak dira, « ou non » hautakari gehigarririk gabe.⁴ Bigarren datu interesgarria da maparen arabera Lapurdiko eta Nafarroa Behereko zenbait eskualdetan ez dela *-(e)netz* erabiltzen (edo ez dela hiztunei burura datorkien aukera bat behintzat);⁵ esaterako, Uztaritzen, Arrangoitzen, Alduden eta Bidarrain. Hala ere, Larresoro inguruko hainbat hizkeratan Epeldek (2004) jaso du *-(e)ne(t)z* menderagailuaren erabilera: Kanbon, Hazparnen, Lekornen eta Larresoron bertan. Maitena Duhalde ere (2023) jasoak ditu menderagailuaren erabilerak Lapurdiko itsas hegiko hizkeretan. Zuazok berak ere (2021) *-(e)nez* menderagailuarekiko adibideak dakartza Baigorri eta Ortzaize ibarretako hizkerarako.⁶ Datu hauetatik ateratzen diren ondorioak bi dira: (1) ez dirudi atlasaren galdeketa erantzun zuten hiztunentzat *-(e)netz* menderagailuak aparteko ñabardurarik duenik eta, zentzu horretan, bai/ez erako zehargaldera emateko menderagailu arrunta da; eta (2) EHHAk aditzera ematen duen baino hedadura zabalagoa eduki lezake delako menderagailuak.

Atlasa alde batera utzita, *Norantz* proiektuaren emaitzak dauzkagu. *Norantz* proiektua ez da berez dialektologia alorrekoa; besterik gabe gaur egun Ipar Euskal Herrian diren hiztunen gramatika ezaugarrien bilduma orokorra egin nahi du, denetariko hiztunei (dela euskara etxean ikasitakoak, dela eskolan edo euskaltegian ikasitakoak) itzulpen bidezko galderak eginez. Hemen ikergai dugun arazoari dagokionez, hiru galdera interesa zaizkit: bai/ez erako galdera arruntak biltzen dituzten C156, C172, eta C174 direlakoak hain zuzen:⁷

(4) Je ne sais pas si je partirai demain

(5) Beñat m'a demandé si je partais bien demain

(6) J'ignore si c'est arrivé à Beñat

Inkestaturiko 59 lagunen artetik, hogeita zortzik erabili zuten *-(e)netz* menderagailuaren aldaera bat (*-(e)nez* ia beti) lehen perpausaren itzulpenean, hogeita hamarrek bigarrenarenean, eta hogeita bostek hirugarrenaren kasuan. Hiztun euskaldun berriak alde batera utzita (lau-sei-lau galdera bakoitzean), gainerakoan batez ere Zuberoako eta Nafarroa Behereko hiztunek erabili zuten *-(e)netz* menderagailuaren aldaera:

4 Lafittek (1962: 399) emandako *ez nakien haizu zenetz* adibidearen itzulpenak ez du ezeztapen baliorako zirrikiturik uzten: « je ne savais pas si c'était permis ».

5 Teorian EHHAk jasoko luke hiztunak emandako bigarren aukera baina kasu gehienetan ez dago halakorik, Lapurdiko Mugerren izan ezik.

6 Izan ere, EHHAk Baigorriako mapa bietan ematen dituen datuek kontraesankorrak dirudite: batean, *denez* erabiltzen dela esaten da baina bestean *jinen den* ageri da. Baigorriin forma biak dabilzala ulertu behar da, beraz. EHHAk Aldude eta Bidarrairako dakarren informazioan, berriz, ez dago *-(e)ne(t)z* horren arrastorik.

7 Badira beste bost zehargalderei buruz ari direnak baina egitura hautakariekin nahasiak: esaterako C168, « Beñat m'a demandé si je partais demain ou après-demain ». Irakurlea ez gogaitze aldera, bost horiek alde batera utzi ditut.

	zuberotarrak	baxenafartarrak	lapurtarrak	hiztun berriak	denera
C156	10	10	4	4	28
C172	10	12	2	6	30
C174	10	11	0	4	25

1. taula: Hiru zehargalderatan *-(e)ne(t)z* menderagailua erabilitako hiztunen kopurua

Alderdi kuantitatiboez harantzago, bi alderdi nahiko nituzke azpimarratu: batetik, *Norantz* proiektuko hiztunek ere iradokitzen dute, nolabait, Lapurdin (Zuberoan eta Baxenafarroan baino) ahulagoa dela *-(e)netz* menderagailuaren erabilera. Datua, dena dela, bere osotasunean hartu behar da, kontuz hartu ere: emandako itzulpena burura etorri ahala emanikoa da baina horrek ez du esan nahi *-(e)netz* erabili zutenek ezin dutela *-(e)n* erabili (eta alderantziz ere bai, noski). Eta, bestetik, datuok erakusten dute, halaber, *-(e)netz* menderagailua bai/ez erako zehargaldera emateko modu arrunta dela hiztun askorentzat, *-(e)n* menderagailuarekin lehian egon daitekeen forma bat alegia, egitura hautakaririk gabeko galdera orokor bat itzultzeko balio duena. Egia osoa esateko, hiztunen konfigurazioa behar da hemen aipatu: 59 elkarrizketatuen artean, hamar hiztun zuberotar daude, hogeita bi baxenafartar, eta hamabi lapurtar; gainerako hamabostak edo euskalki nahasikoak dira (herrialderik aipatu gabe) edo hiztun berriak (lau eta hamaika, hurrenez hurren). Bestela esanda, *Norantz* proiektuko jatorrizko hiztun zuberotar guzti-guztiek erabili zuten *-(e)netz* menderagailua, baina baxenafartarrek eta lapurtarrek noiz *-(e)netz* noiz *-(e)n* hautatu zuten.

Azkenik, Bizkai aldeko *-(e)nentz* aldaera aipatu behar dugu: Altuberen (1929) arabera, *-(e)nentz* Gernika aldean erabiltzen omen da eta Arejitak (1985) Bermeo-Mundakara ere zabaltzen du erabilera. Barrutiak (1994) *-(e)nentz* aldaera Bermeoko euskaran erabiltzen dela jasotzen du. Gidor Bilbaok eta Cecilia Fernándezek (k. p.) diostate adin bateko hiztunek bai erabili izan dutela oraintsu arte baina ez ei da gaur egun erabiltzen; izan ere, Gaminde, Romero eta Legarra (2012) liburuan, esaterako, ez da aipatzen. Gernika inguruan ere, ez omen da gaur egun erabiltzen, Ariane Ensunza eta Iñigo Arteatzen (k. p.) arabera.⁸

2. *-(e)netz* menderagailua nekez izan liteke ‘-(e)n ala ez’ egitura bat

Altuberen (1929) oharra gorabehera, ez dirudi *-(e)netz* menderagailuak *ñabardura* berezirik duenik edota ‘ala ez’ gehigarri hautakari baten laburtzea denik; besterik gabe, bai/

8 Añibarro arratiarrak *-(e)nez* aldaera erabiltzen du, baina gaur egun ez ei da erabiltzen: hala dio Iglesiasek (2014) Igorreko hizkeraz eta egoera berdina da Diman (Jaione Ibarra, k. p.) eta Zeanurin (Jone Ozerinjauregi, k. p.). Euskaltzaindiaren EHHA (2016) lanean, Bakion soilik jasotzen da *-(e)nentz* aldaera Bizkairako.

ez motako galderetan ageri denez, erantzuna behar delarik erantzun hori 'bai' zein 'ez' izan daiteke (hots, (1)-eko perpausari *baietz erran dakot* zein *ezetz erran dakot* jarraipena eman lekiok). Horretarako arrazoiak hauexek dira:

i. bai atlasean bai *Norantz* proiektuko galdetegietan ikusi dugunez, bai/ez motako galdera arruntetan *-(e)netz* erabil dezakete hiztunek *-(e)n* menderagailuaren parean, inolako gehigarri hautakari baten beharrik edo estimulurik gabe.

ii. Rebuschik (2013) azaltzen duenez, *-(e)netz* bera bateragarria da ezezkako galdera batekin eta hori nekez ezkontzen da 'ala ez' egitura edo interpretazio batekin. Rebuschik Larzabalen adibide hau dakar:

(7) Jin zitzaukun galdea ean *ez ginenetz* atez tronpatzen (P. Larzabal, *Antzerki Laburrak*, 1930-64).

Ez da askorik kostatzen 20. mendetik honako adibide gehiago aurkitzea:

(8) Aditzen dut ene sahetseko apezñoa, han balitz bezala izaitez, *ez* baitakit *ez dutanez* ere ene burua itzultzen haren gana (J. Etxepare, *Beribilez*, 1931)

(9) Huna bertsu zahar zombait. Erradazue *ez dutenetz*, funtsetik landa, truskil aire bat (P. Lafitte, *Euskal Literaturaz*, 1990)

(10) Horra zeri pentsatzen zuen... Eta bere baitan zion heian zertan zitaken mariñelaren amodioa, *ez zenez* ote urean itoxea untiarekin batean? (J. Etxepare Landerretxe, *Mendekoste Gereziak*, 1962)

(11) Lege berri bat agertzen denean horrek du erran behar, galdetua izaiten bazaio behin, lege horrek *ez duenetz* deusetan kolpatzen edo tratatzen lege nagusia (*Herria*, 2013/01/17)

(12) Galde egin zuen ... *ea ez ote zenetz* arto hura transgenikoa (A. Luku, *Garazin antzerki* 3, 2021)

iii. Hirugarrenik, *-(e)netz* duten perpausak eurak egitura hautakari batekin koordina daitezke, are 'ala ez' bezalako batekin. Azken datu hau ('ala ez' egiturarekin bateragarri izatea) Rebuschik (2013) aipatzen du oinohar batean eta adibideak gutxi eta bakanak direla dio. Hala ere, gauzak ez dirudi hala direnik. *Norantz* proiektuko C171 itemaren itzulpenak ikusi besterik ez dago:

(13) « J'ignore si cela vous est, ou non, déjà arrivé »⇒

a. Iñoatzen dit hoi deja agitü zaizünez ala ez

b. Eztakit hori deja agitü zaizünez ala ez

c. Ez dakit hori jadanik gertatu zautzunez ala ez

d. Eztakit zuri jadanik gertatu zauzun ala ez

Aukera hori baliatu dutenen hiztunen artean zuberotarrak eta baxenafartarrak dira. Eta literaturaren tradizioan ere topatu ditut halako adibideak, batzuk aspaldikoak:

(14) Zer izanen da bada dudan othoitz egiten dutenez dudatzen dutelarik lainkoak enzunen *dituenez bai, ala ez?* (J. Leizarraga, *Katexismea*, 1571)

(15) Eztezazula iharduki halako tentazionearekin, ea konsentitu *duzunz edo ez...* (S. Pouvreau, *Gudu Espirituala*, 1665)

(16) eta egunak diraeino hainitz aldiz examinatu behar gare ikusteagatik ea konplitu *ditugunz edo ez, ...* (S. Pouvreau, *Gudu Espirituala*, 1665)

(17) Hori eginik, etzaitezila iar gogoeta egiten ea lainkoak barkhatu *derautzunz edo ez* (S. Pouvreau, *Gudu Espirituala*, 1665)

(18) Eta orai nago zorion hori izanen othe *dudanez* oraino, *ala ez* (J. P. Duvoisin, *Liburu ederra*, 1856)

(19) Bainan, nola bethi ohean baitzauden, kexaturik, erran zioten berriz ere nausiak: hean jeiki gogo *zutenez, bai ala ez?* (J. Barbier, *Ixtorio-mixerio*, 1929)

Ikuspegia *[-(e)netz + ala]* egituretara aldatzen badugu, orduan adibide gehiago sumatzen dira:

(20) Gutiziek bortizki zerabilzate ardura, sutan ezartzen zituztela: beha ordean ontsa, ohoretan ari *zirenetz ala* gehienik zuhauren onetan (L. Leon, *Jesu-Kristoren imitazionea*, 1929)

(21) Jaun auzapeza dudan dago ordaindu behar *duenetz ala* hortik alde egin (D. Landart, *Nola jin, hala joan*, 1985)

(22) Ez nakien ostatu batean pasatu behar *nuenez* gaua *ala* ospitaleraino joaiten ahal nintzen (J. Etxepare Landerretxe, *Mendekoste Gereziak*, 1962)

Labur esanda, *-(e)netz* menderagailuak *-(e)n* menderagailuaren aldaera dirudi eta, hark bezala, ezezakako galderetan eta egitura hautakarietan agertzea onartzen du. Aldaeren ugaritasuna lotuta egon liteke, Lafittek (1962) aditzera ematen duen bezala, instrumentalak sarritan erakusten duen poliformismoarekin (noiz *-z*, noiz *-tz*).

3. *-(e)netz* menderagailuaren sintaxiaz

Aurretik esan dut *-(e)n* eta *-(e)netz* menderagailuen arteko aldea haxe dela: bigarrena

ez da posible galdetzaileekin, bai/ez motako galderetan soilik da zilegi:

- (23) a. Ez dakit nor den eri
 b. *Ez dakit nor denetz eri
 cf. c. Ez dakit Maddi eri denetz


Hortaz, iduri du biak galderazko perpaus guztiek partekatzen duten tasun morfosintaktikoren batekin datozela bat, baina lehenak [NZ], [+galdetzaile] alegia, tasuna duen bitartean, bigarrenak horixe falta duela. Mikrobariazio hori honela formula genezake informalki, zehargalderak ezaugarritzatzeko [Q(uestion)] tasuna nahiko dela baderitzogu (Adger 2003):

- (24) a. *-(e)n*, *Konp*, [Q], ([*NZ])
 b. *-(e)nez*, *Konp*, [Q]

Hots, *-(e)n* menderagailu edo konplementatzaileak galderei lotutako tasun morfosintaktikoa dauka eta, gainera, aukeran (euskaraz normalean ezkerretara mugitzen diren) galdetzaileek duten tasun morfosintaktikoa erkatu/zilegiztatu dezake; *-(e)nez* delakoak, aitzitik, zehargalderak sortzen ditu, baina galdetzailerik gabekoak.

Bestalde, Rizzi (1997) lanetik aurrera ohikoa da gramatika sortzailean onartzea garai bateko *KonpS* hizkuntza askotan bi burutan bana daitekeela: indar ilokutiboa markatzen duen buru bat, *Indar*, eta aditzaren morfologiari lotutako *Jokatu* burua (ingelesez, *Finite*). Euskaraz, Rizziren ideia hori Ortiz de Urbinak (1999) aplikatu du eta proposatu zehargalderetako 'ea' *Indar* buruaren gauzapena dela euskaraz eta *-(e)la*, *-(e)n* bezalako menderagailuak *Jokatu* buruak direla, buru-azken gisa gauzatuak:

- (26) Indar-S > TopS > FokS > Jok > DnbS



(27) Galdetu du [_{Indar} *ea* [_{Jok} libururik erosi du [_{Jok} -en]]] [O. de Urbinaren 17b]

Ikuspegi horren arabera, *Indar* eta *Jokatu* buruen sintagmen artean ager litezke mintzagaiak eta fokuak edo galdegaiak (galdetzaileak barne). Guri interesa zaigun puntuari dagokionez, *-(e)n* eta *-(e)netz* menderagailuak *Jokatu* buruaren gauzapean lirerateke. Ez harrigarriro, bata eta bestea bateragarri dira *ea* buruarekin, noski (eta gaur egungo hiztunek ere hala dela berretsi didate):

(28) a. Lehia zadien eman ere zakon norbeitek sista bat gizon gazte hari berari: *ea etzitzaizkonez*, bere mintzoaren adiarazteko, inguruan zituen entzule hek aski? (J. Etxepare, *Buruxkak*, 1936)

b. Ikusteko *heian* ba *denez* etxe huntan, harma, plaztika, bonba edo zerbait gauza hirriskudun. (D. Landart, *Bai ala ez*, 1969)

Beraz, menderagailuak egiazki *Jokatu* kategoriako elementuak badira, arestiko karakterizazioa poxi bat aldatu beharko litzateke:

(29) a. *-(e)n*, *Jokatu/Finite*, [Q], ([*NZ])

b. *-(e)nez*, *Jokatu/Finite*, [Q]

Gai honetaz berriki jardun duen bakarra, nik dakidala behintzat, Rebuschi (2013) izan da. Rebuschik *-(e)netz* menderagailua (sinkronikoki) bi morfematan zatitzen du: *-(e)n* + *-etz*, *baiez/ezetz* hitzen antzera eta *-etz* delako morfema *Foku* buruarekin lotzen du. Proposamen honekin arazo bat gutxienez ikusten dut: ez zait batere argia iruditzen *-etz* horren ekarpena foku-markaketa denik (izan ere, badira *-(e)netz* menderagailua duten perpausak eta itxura batean inolako fokurik ez dutenak). Ezezko zehargalderetan ere, posible da adizki jokatu bere lekuan gelditzea, Ortiz de Urbinaren (1995, 1999) lanetan behintzat adizki jokatuaren aurreratzerik (eta beraz foku esturik ere) ez dagoela salatuko lukeen ezaugarria:

(30) Eta batere ez dakit nigar ere egin ez dutanez (J. Barbier, *Piarres II*, 1929)

Iruditzen zait *-(e)netz* menderagailua gaurko ikuspegitik (ez diakronikoki) bitan banatzekotan argiago geratu beharko litzatekeela zein den menderagailuaren *ñabardura* *-(e)n* menderagailu soilarekin erkatuta.

Argi izpi bat Monforteren (2018, 2020) lanetan egon liteke agian. Izan ere, bi datuk bat egiten dute hemen:

i. *-(e)netz* menderagailuaren hedadura geografikoa eta bai/ez motako galderetako *-a* partikularena antzekoak dira gaur egun neurri handi batean (hau da, Zuberoa, Baxenafarroa eta Lapurdiko eremu handi bat);

ii. ez bata ez bestea ez dira nahitaezkoak euren erabileran. Hots, *-(e)netz* erabiltzen duten hiztun gehienek *-(e)n* ere erabil lezakete eta *-a* erabiltzen dutenek bai/ez motako galdera bat *-a* partikularik gabe ere egin dezakete (Monforte 2018, 2020). Monforteren (2020: 168) arabera, *-a* partikula performatiboak duen *ñabardura* semantiko-pragmatikoa da hiztunak solaskidearen arreta erakarri nahi duela, dela bai/ez edo ekintza bidezko erantzun bat jasotzeko, dela proposizioaren berrespena jasotzeko; baina bai/ez motako galdera *-a* gabe ere egin liteke.

Monfortek (2020) bere analisi sintaktikoan *-a* partikula performatiboa DnbS eta JokS proiektzioen gainera kokatzen du, Kanpo-Partikula Sintagmaren buruan. Beraz, demostratuko balitz *-(e)nez* menderagailuak (*-(e)n* orokorraren aldean) duen *ñabardura* semantiko-pragmatikoa dela nolabait seinatzea solaskideari (edo irakurleari) zehargaldera egiazki irekia dela eta bai/ez balio biak dituela zabalik, hots, *-a* partikula performatiboaren antzeko *ñabardura* duela, orduan ontzat eman genezake agian *-(e)netz* bai *Jokatu* buruarekin bai Kanpo-Partikula buruarekin lotzea (*-(e)n* + *-(e)(t)z* zatiketa eginez). Bestela esanda, perpaus nagusietan *-a* partikula performatiboak okupatzen duen posizio sintaktikoa okupa lezake delako *-(e)(t)z* morfemak. Gaurkoz, datu gehiagoren esperoan, (29)-ko proposamen kontserbatzaileagoari eutsiko diot, *-(e)netz* forma bakarra balitz bezala hartuta.

Bukatze aldera, zubereraren egoera aipatu behar dut: esana dugu jada *Norantz* proiektuko informatzaile zuberotar guztiek hautatu zutela *-(e)nez* bai/ez motako zehargalderetan. Are gehiago: hiztun batzuentzat behintzat, badirudi horrelako zehargalderetan *-(e)nez* erabiltzea beste aukerarik ez dagoela:

(31) a. * Amak galtatü deit eri nizan [M. Bedaxagar, k. p.]

b. Amak galtatü deit eri nizanez

Datu horiek bat datoz, esaterako, Etxebarnek (2015: 79) zeharka deskribatzen duen egoerarekin: *galtatü deiot jinen denez* vs *galtatü deit nor jin den*. Datuok berresten badira, Zuberoako euskaran bai/ez motako zehargalderetan *-(e)netz* menderagailua litzateke aukera bakarra eta *-(e)n* + *z* konbinazio hau erabat gramatikalizatuta legoke testuinguru sintaktiko

horretarako. Datozen ikerketek argituko ahal dute puntu hau.⁹

4. Ondorioak

Laburbilduz, artikulu honetan gaur egun Ipar Euskal Herriko hizkeren ezaugarri den *-(e)netz* menderagailuaren morfosintaxia eztabaidatu dugu eta sumatu dugu, Larramendirengandik (1729) datorkeen ikuspegiaren kontra, menderagailu horrek ez duela 'ala ez' egitura hautakaria ezkututzen eta *-(e)n* menderagailuaren aldaera dela, bai/ez motako galderetara murriztuta. Delako *-(e)netz* menderagailu hautakariaren teoria berau ezezkako zehargalderetan posible izateak eta egitura hautakariarekin bateragarri izateak gezurtatzen dute, Ipar Euskal Herriko testu modernoetan eta gaurko hiztunengan sumatzen den bezala. Ikerkizun dago zein den *-(e)netz* menderagailuaren ñabardura semantiko-pragmatikoa (halakorik badago behintzat); nolana ere den, beronek zehargalderetako [Q] tasun morfosintaktikoa izango luke eta, ikuspegi bimorfematikoa onartzekotan (i.e. *-(e)n* + *-e(t)z*), hipotesi modura esan dugu *-e(t)z* morfemak *-a* partikula performatiboak betetzen duen lekua bete lezakeela. Zubereraz, aitzitik, *-(e)netz* menderagailua (*-(e)nez* aldaera hain zuzen) aukera bakarra izan liteke hiztun askorentzat bai/ez zehargalderetan.

9 (29)-ko eskematxoa zubererarako honelako zerbait litzateke:

(i) zuberera

a. *-(e)n*, *Jokatu/Finite*, [Q], [*NZ]

b. *-(e)nez*, *Jokatu/Finite*, [Q]

Hots, *-(e)n* soila beti agertuko litzateke galde-hitzen bat duen zehargalderetan. Coyosek (2012) argitaratutako 20. mendearen lehen hereneko antologiari begiratu azkar bat emanik, topatu dut kasu gehienetan bai/ez erako zehargalderak *-(e)nez* menderagailuarekin ageri direla. Hala ere, *ala* juntagailu hautakariarekin *-(e)n* orokorra ere ikusten da, aukeran:

(ii) a. Hor hizanaz gainen ikusi behar diat eia deūs honik egiten ahal *dūdanex* hitarik, ala ūkül muntra egiteko *hizan* hoberena (B. Coyos, *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri*, 2012, 47).

b. Geroztik ihork ere ez dū haren berri jakintū, eia leze hartan behera xūxen ifernūalat eraitxi *zenez*, ala llamina zonbaiti esker han orano bizi ote *denez*. (ibidem, 50)

c. Badakik bai ontsa aūzoko begi gorri horrek ikusten dūala gaūaz ere sūkaltea xahū ala zikin *den* (ibidem, 88)

Bada zer ikertu, beraz.

Bibliografia

- Adger, David. 2003. *Core Syntax. A Minimalist Approach*. Oxford: Oxford University Press.
- Azkue, Resurrección M. de. 1925. *Morfología Vasca*. Bilbao. [berrargitalpen faksimila: 1969, La Gran Enciclopedia Vasca]
- Altube, Sebero. 1929. Erderismos. *Euskera* 10(1-4). 1-315.
- Arejita, Adolfo. 1985. *Euskal Joskera*. Bilbo: Labayru.
- Barrutia, Eneko. 1994. Bermioko euskararen ezaugarri morfosintaktiko batzuk. In Ricardo Gómez & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua*, 398-418. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Biezma, María. 2009. Alternative vs. polar questions: the cornering effect. In Ed Cormany, Sathoshi Ito & David Lutz (arg.), *Proceedings of Semantics and Linguistic Theory (SALT) 19*, 37-54. <https://doi.org/10.3765/salt.v19i0.2519>
- Bolinger, Dwight. 1978. Yes-No questions are not Alternative Questions. In Henryk Hił (arg.), *Questions*, 87-105. Dordrecht: Reidel.
- Duhalde, Maitena. 2023. *Lapurdi itsas hegiko euskara*. UPV/EHUko doktorego tesia.
- Epelde, Irantzu. 2004. *Larresoroko euskara*. UPV/EHUko doktorego tesia.
- Etxebarne, Juje. 2015. *Gramatika Emendakinak Zuberoako euskaraz (Edizio Zuzendua)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 1999. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 2016. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*. 7 liburukia. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 2021. *Euskara Batua*ren Eskuliburua, 4. argitaraldia. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Gaminde, Ignacio, Asier Romero & Hiart Legarra. 2012. *Gramatika eta hizkuntz bariazioa Bermeon*. Bermeo: Bermeoko Udala.
- Goenaga, Patxi. 2009. Hauta-galderez. *ASJU* 43, 381-404.
- Iglesias, Aitor. 2014. *Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa*. UPV/EHUko doktorego tesia.
- Lafitte, Piarres. 1962. *Grammaire Basque*. Ika: Baiona.

- Larramendi, Manuel. 1729. *El Imposible Vencido*. Salamanca: Antonio José Villagordo Alcaraz.
- Monforte, Sergio. 2018. Question particles in Basque. *Isogloss. A Journal on Variation of Romance and Iberian Languages*. 4(1). 29-53. <https://doi.org/10.5565/rev/isogloss.48>
- Monforte, Sergio. 2020. Galderetako -a, al eta ote partikulak euskaraz. *Sintaxia, mikroaldakortasuna eta interpretazioa*. UPV/EHUko doktorego tesia.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1999. Force Phrases, Focus Phrases and Left Heads in Basque. In Jon Franco & Alazne Landa (arg.), *Grammatical Analysis of Romance and Basque*, 179–194. Amsterdam: John Benjamins.
- Oyharçabal, Beñat, Irantzu Epelde & Jasone Salaberria. 2009-2011. Norantz proiektua. Baiona: IKER-UMR5478. <http://www.norantz.org> (2023/02/27)
- Rebuschi, Georges. 2013. On embedded interrogatives and related constructions in Northern Basque. In Colette Bodelot, Hana Gruet-Skrabalova & François Trouilleux (arg.). *Morphologie, syntaxe et sémantique des subordonnants*, 209-224. Clermont-Ferrand: Presses Universitaires Blaise Pascal.
- Rizzi, Luigi. 1997. The Fine Structure of the Left Periphery. In Liliane Haegeman (arg.), *Elements of Grammar*, 281–337. Dordrecht: Kluwer.
- Txillardegui. 1979. *Euskal Gramatika*. Donostia: Ediciones Vascas.
- Villasante, Luis. 1976. *Sintaxis de la oración compuesta*. Oñati: EFA.
- Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, Koldo. 2021. *Baigorri eta Ortzaize ibarretako euskara*. Bilbo: UPV/EHU.

Erabilitako corpus-lanak

- Coyos, Jean-Baptiste. 2012. *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskal Klasikoen Corpora: <https://www.ehu.eus/ehg/kc/>
- Ereduzko Prosa Dinamikoa: <https://www.ehu.eus/ehg/epd/>
- Luku, Antton. 2021. *Garazin antzerki 3. Maiatz*: Baiona.